

Neguari beldurraren koloreak



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Gure egutegia udazkenean sartu da, baina zuhaitzena eta gainerako landareena sartu-ez sartu dabil. Gehienak aurten-goan beranduxeago dabilta. Landareen aurtengo zalantza horrek bizigarria eransten dio urteko espektakulu handienetako bati. Luzeagoa izango da kolore festa.

Landareak erabaki zehatza hartu behar du: negurako prestamenak noiz abiatu, alegia. Bere burua nola sumatzen duen, egun batean edo bestean gertatuko da hori. Argi kopuruaren jaisierak eragingo dio, batez ere. Horregatik, landare denak ez ditugu batera soinekoz aldatzen ikusiko, ezta espezie berekoak badira ere. Bakoitzaren erabakia da.

Erabaki horrek izugarritzko aldaketa saldoa ekarriko du. Ez du gehiago klorofilarik sortuko, hau da, landarea berde egiten duen gaia; eta hostoetan daukana eraitsi eta bere osagaiak jaso eta ondo gordeko ditu, neguari beldur gordekinak gizenduz. Hostoetan berdearen soinekoetan ezkatututa dauden beste pigmentu eta osagai batzuk azaltzen dira orduan, udazkeneko kolore berriak erakutsiko dizkigutenak. Kolore hori eta laranja karotenoek eta flabonoideek dakartzate. Gorriak, aldiz, antozianinen lana dira. Horiek sortu egin behar ditu



ADRIAN PELLETIER

landareak; ez daude hostoetan, eta, beraz, "garestiagoak" dira.

Zientzialarien aspaldiko enigma da nola European zuhaitzek batez ere hori koloreetara jotzen duten eta nola Ipar Amerikan eta Asian gorrietarako joera duten. Agidanean, gorrirako joera duten zuhaitzek izerdi bila erasotzen dieten zorriei abixua ematen diete: antozianina toxikoak sortu ditut eta jakiak erre-serbetara mugitzen ari naiz, beraz zuretzat jaki gutxi eta arriskutsua dut.

Besteetan ez bezala, European, mendikateak ekialde-mendebalde lerrokatuta

Zientzialarien aspaldiko enigma da nola, udazkenean, European zuhaitzek batez ere hori koloreetara jotzen duten, eta Ipar Amerikan eta Asian gorrietara.

daudenez, glaziazio garaietan, hotzari ihes egiteko hegoalderanzko bidean mendiak igaro ezinik landare asko hil egingo ziren, eta baita haien arerioak ere. Gero zuhaitzek kontinentea birpopulatu zutenean areriorik ez eta gorritu beharrik ez... Ba ote? ■

Basherri
GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK *sarea*

HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!

